



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-06-04**

VI.URTEA 1.451.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herenegun, udaletxeko batzar aretoan bildu ziren, Guatemalako proiektuen berri emateko. N.URBIZU

LAGUNTZEN ARI DEN GUATEMALAKO BOST PROIEKTUEN BERRI IZAN DU UDALAK

ALEGIA Francisco Velasco guatemalarra eta Seve Zubiri Mugen Gaietarako erakundeko koordinatzailea izan ziren herenegun, eta Udalak emandako laguntza nola baliatzen duten azaldu zuten 4

Leitza, Lekarotz, Doneztebe, Altsasu eta Berako ikasleen emanaldia izango da gaur

LEITZA 690 ikasle inguru elkartuko dira gaur Amazabal Pilotalekuan, 17:00etatik aurrera; guztien artean, hamar kanta abestu eta hiru dantzatuko dituzte, X. kontzertua izango den honetan 7



Erakusketan ikusgai dauden lanetako bat. HITZA

Euskaltegiko ikasleek eginiko margolanak ikusgai jarri dituzte

TOLOSA Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren baitan jarri dute erakusketa 2

**CIP LHI
PRESENTACIÓN
DE MARÍA**
Donostia - San Sebastián

LANBIDE HASTAPENA

ESPEZIALITATEAK:

- Erakuntzetako lehen-langak
- Informazioa ekipen konpetentzia
- Informazioa ekipen konpetentzia
- Informazioa ekipen konpetentzia

**MATRIKULA
ZABALIK
2008-09 URTERAK**

Ubarburu Pasealekua, 37 - Pabellioak: 21-22 - 27 Poligonoa Martutene
20014 DONOSTIA Tel.: 943 46 01 45 cipp.maria@terra.es

Etxeko lorezaintza ikastaroa antolatu du Ikastn-ek

Tolosa » Ikastaro teoriko eta praktikoa izango da; doakoa da eta edozeinek har dezake parte; hilaren 9an hasiko da.

ERREDAKZIOA

Ikastn-ek, Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzuak oinarritzko lorezaintza ikastaroa antolatu du. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da. Lorezaintzaren inguruko xehetasunak teoria bitartez eskuratuko dira ezagutzak eta aldi berean, landare mota ezberdinekin praktikak eginez. Esaterako, haztegi batera bixitan joango dira, landaketak egin, eta beste hainbat ekintza ere gauzatu dituzte.

Oinarritzko lorezaintza ikastaro honen edukia ondorengoak izango dira: landare motak, aholku orokorrak, zainketa espezifikoak, argia, ura, lurra, temperatura, hezeta, ongarrak, izurriak eta gaixotasunak.

Hastapen ikastaroa dela kontuan hartuta interesatuak ez dute inolako baldintza berezirik bete behar. Taldearen arabera, eskolak euskaraz edo gaztelaniaz izango dira. Hauek asteleheneetik ostegunera bitartean izango dira, arratsalde, egunean bi ordu eta erdi emango dituztelarik. Denera, ikastaroa 20 ordutakoa izango da eta gauzatzen dutenei ziurtagiri bat emango diete.

Datorren astelehenean, hau da, hilaren 9an hasiko dira jardunaldiak, eta 19an bukatu. Gainera, parte hartu nahi dutenek ez daukate ezer ordaindu beharrik. Izen-ematea 615 77 56 78 telefono zenbakira deituta egin daiteke, etzi bitartean.

Tolosaldeko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako (BOZI) Bitartekotza Zerbitzua da Tolosaldean Ikastn. Honek, hezkuntzari eta prestakuntzari beste ikuspuntu bat eman nahi dio.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58ra.

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Interesatu dutenek deitu 635 04 57 98ra.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakietara: 657 23 00 11 eta 634 91 94 82ra.

Laburrak

Antxustegietxarteren komikiak Hirukiden

TOLOSA » Galtzaundi Euskara Taldeak ikusgai jarri ditu Joseba Antxustegietxarteren komikiak, Hirukide Eskolapioak ikastetxean. Erakusketa bihar eta etzi egongo da zabalik. Antxustegietxarte 1997. urtean hasi zen Tolosaldeko Herri Aldizkarirako komikiak egiten, eta geroztik, hamabostean behin hutsik egin gabe, borondatez egiten du lan hori. Hau eskertzeko eta aitortzeko komiki erakusketa antolatu zuen Galtzaundik Tolosako Kultur Etxean eta erakusketa hau eskualdean zabaltea da beraien asmoa.

Alliri kalea eta Araba etorbidea, gune urdin

TOLOSA » Udaltzaingoa ohartarazi duenez, zenbait aldeketa egongo dira TAO guneetan. Hasteko, Alliri kalea gune gorritik urdinera pasako da. Hala ere, bizilagunek orain arteko txartelarekin bertan apartatzea posible izango dute inongo arazorik gabe. Bestalde, Araba etorbidearen atzeko aldean dagoen aparkalekua ere gune urdin moduan jarriko da. Gainera, behin eta berriro TAO arua hausten duten ibilgailuei dagokienean, jakinarazten dute, hauek garabiarekin eraman edo zepo bidez ibilgutuko dituztela.

'Blade runner' izango da ikusgai Zine Forumean

TOLOSA » Astero bezala, bihar Zine Forumean bi saio izango dira. Eta hauetan ikusgai izango den filma Ridley Scott-en *Blade runner* izango da. Etziko gainera, Aste Berdeko ekimenen baitan sartzen da. Lehendabiziko emanaldia 19:15ean izango da, eta hurrengoa 21:45ean.

Koadrila eguneko bazkariko txartelak salgai

TOLOSA » Hilaren 21ean, San Joan jaien baitan koadrila eguna ospatzen da. Hori dela eta, bazkarirako tiketak etzi jarriko dituzte salgai. Orbela tabernan eskura daitezke 20 euroren truke. Erosteko ordutegia ondorengoa izango da: etzi, 19:00etatik 21:00etara. Larunbatean, 12:00etatik 14:00etara. Hilaren 13an berriz, 19:00etatik 21:00etara eta 14an, 12:00etatik 14:00etara.

Gizarte Laguntzailea Gaztainondon egongo da

LEITZA » Udaleko Gizarte Zerbitzuek azaldutakoaren arabera, hemendik aurrera gizarte laguntzailea Gaztainondo elkartean egongo da. Ekainean, astearte, asteazken eta ostiraletan egongo da 09:00etatik 14:00etara. Uztailetik aurrera berriz, asteazken eta ostiraletan, ordu berean.



Egun euskaltegiko ikasle direnek, nahiz ikasle ohiek egin dituzte margolanak; euskaltegian daude ikusgai. ESTI EZEIZA

Euskaltegiko ikasleen margolanak ikusgai dira

Tolosa » Aitzul Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren ospakizun ekimenen baitan erakusketa prestatu dute.

ESTI EZEIZA

Aitzul Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu, eta iaiztik hasita, hainbat ekintza ari dira egiten urteurrena ospatzeko. Jarduerekin amaitzeko, pintura erakusketa izango da ikusgai hilaren 13a bitartean.

Pablo Gorosabel kalean kokatuta dagoen Euskaltegian bertan daude kokatuta margoak, eta 10:00etatik 21:00etara bitartean dago zabalik nahi duen ororentzat. Izan ere, euskaltegia ezagutzen ez duten guztiei hara joateko deia lutzatzen diete bertakoek. Bestalde, hilaren 20an, antzerki emanaldi bat ere izango da, nahiz eta oraindik xehetasun gehiegi ez dituzten eman antolatzaileek.

Ikasleen margolanak Euskaltegian zintzilik

Atzoko aurkezpenen Mikel Uzkudun, Euskaltegiko zuzendariordeak azaldu zuen bezala, «25 urte hauetan jende ugari igaro da hemendik, eta hauetako asko ikasle izateaz gain, artista ere badira». Izan ere, jende ospetsu askok hartu ditu eskolak Tolosako Euskaltegian. Honekin lotuta, euskara ikasten ari zen batek proposatu zuen erakusketa bat jartzearena, eta hala egin dute. Ibarrako pintura ikasleekin harremanetan jarri ziren eta hainbat margolan lortu ondoren, ikusgai jarri dituzte. Hauek, gaur egun euskaltegian dabilzan ikasleek nahiz ikasle ohiek egindako lanak dira.

Erakusketa honekin euskaltegi-koek islatu nahi dutena da ere, artea, kultura eta euskara bateratuta doazela Euskal Herrian. Gainera, artelanak ikustera hurbiltzen direnek aukera paregabea dute Euskaltegia ezagutzeko. Izan ere, le-

hen aipatu bezala, autoikaskuntzako gelan kokatuta daude artelanak. Hori dela eta, hau nahiz gairontzeko gelak ezagutzeko gonbita luzatzen dute Euskaltegiko arduradunek. Gainera, autoikaskuntza sistema duela urte gutxi jarri zen martxan, eta arrakasta handia ari da lortzen.

25 urte lanean

Batez beste 400 bat ikasle izan ditu urtero 25 urte hauetan Udal Euskaltegiak. 4.000 ikasle inguru, beraz, eta aurrera begira ere, lanarekin jarraitzeko asmo bizia ageri dute ikasle nahiz irakasleek.

2007-2008ko ikasturtea hasterekin batera ekin zieten 25. urteurrenoko ospakizun ekitaldiei. Horien artean izan dira, argazki erakusketa, bertso kabareta, hitzaldiak... Baina, azken txanpara iritsi dira dagoeneko, eta margolanen erakusketa izango da azken ekintzetako bat. Orain arteko jarduerak borobilduz.



Herenegun aurkeztu zuten erakusketa. Bertan izan ziren margolariak eta Mikel Uzkudun zuzendariordeak. ESTI EZEIZA

Laskoraingo 40 urtetako bizipenen liburua aurkeztuko dute gaur

Hezkuntza » Ikastolak 40 urte betetzen ditu aurten eta horregatik egin dute; ekitaldia, Leidorren izango da, 19:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Laskorain ikastolak 40 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela-eta ekitaldi ugari antolatu dituzte. Urteurreneko azken ekitaldia gaur egingo dute, 19:00etan, Leidor aretoan. Hain zuzen ere, 40 urte hauek biltzen dituen *Urtez urte biziz bete* liburua aurkeztuko dute bertan.

Liburuan urte hauetan ikastolatik pasatu diren ikasle, irakasle eta guraso batzuen bizipenak bildu dituzte. «Ikastolaren 40. urteurreneko liburua hau prestatzen hasi ginenean, 40 urtetan 40 ikasle belaunaldi zirela uste genuen. Berehala konturatu ginen ezetz, 40 urte hauetan orain arte gure labetik 28 labekada ateratzea zirela kalera eta gaur egun gure fabrika beste 15 maila ditugula labean, batzuk laster kanporatzeko prest, beste batzuk berriz, oraindik eginak



40 emozio urte jaialdiko une bat. HITZA

egoteko asko falta zaiena. Guztira 43 adin multzo, nolabait esateko, azaltzen dute liburuaren egileek. «Betiko kirolari, artista edo aurpegi ezagunetara ez jotzea jarri genuen helburutzat, denek lekua egin nahi genielako, denak izan direlako ikasle». Bizipenak kontatzerako orduan, bakoitzari lan librea eskatu zioten eta bakoitzak olerkia, argazkia, marrazkia, idatzia... aukeratu du lan hori egiteko.

Hala, aurkezpen-ekitaldi «atsegina» antolatu nahi izan dute, bertan izango direlarik liburuan parte hartu duten egileetako batzuk, argazki eta bideoen laguntzaz oroi-menei errepasoa emateko.

Poesia errezitaldiaren errepikapena

Osagarri gisa, eta eskari ugari erantzunez, Batxilergoko ikasleek Galtzaundi euskara taldeak anto-

latu zuen Poesia Errezitaldian eskaini zuten saioaz berriro gozatzeko aukera izango da. Ekitaldiak ordubete iraungo du eta liburua eta 40 emozio urte jaialdiko DVDa salgai izango dira bertan.

Laskorain ikastolako ordezkariak ikasle, ikasle-ohi, guraso, irakasle eta «urte hauetan gurekin izan zaituztegun guztiak» gonbidatu nahi izan dituzte gaurko ekitaldira.

«40 urteak gorde behar ziren nonbait»

JONE URTEAGA » Laskorain ikastolaren zuzendaria

I. TERRADILLOS

Laskorain ikastolaren zuzendariak, Jone Urteagak, (Tolosa, 1958) liburua egitearen prozesua nola izan den, eta gaurko ekitaldia nolako izango den azaldu du.

Nola ateratzen zen liburua egitearen ideia?

Ikastolaren 25. urteurrenean libururua bat egin genuen, historiari buruz, eta bizitzako une garrantzitsuenekin. Orain, 40. urteurrenean, argi genuen nonbait jaso behar genuela 40 urte hauek, eta hortik sortu zen liburua egitearen ideia.

Nola osatu duzue?

Bagenekien historia liburu bat ez zela izango. Zerbait bizia eta arina

nahi genuen, irakurterraza. Bestalde, ezegunek eta ez aurpegi ezagunek eginiko zerbait izatea nahi genuen. Hala, belaunaldi bakoitzeko ikasle bat aukeratzea erabaki genuen, eta horretan hasi ginen, zerrendak-eta hartuz, eta ikasleei ideia proposatuz. Hortik aurrera, bakoitzari bere bizipenak eskatu genizkion, bakoitzak bere erara isladatzeko, olerkian, narrazioan, bertsoan, marrazkian... Guztira, 43 belaunaldi izan dira, eta bakoitzeko ekarpen bat. Horretaz gain, kilometroak, abesbatza, aisialdi taldea eta nesken futbol taldearen inguruan ere badira orrialdeak. Oso entretenigarria da.



Jone Urteaga. HITZA

Jende askoren artean eginiko lana izan da, beraz.

Bai, lan handia du hainbeste jendek ekarpenak biltzeko. Hau guztia koordinatzen Joxemi Saizar ikastolako irakaslea eta Miren Lo-

pez Mendizabal ikasle ohia eta irakaslea aritu dira. Liburuaren diseinua, berriz, Zigor Agirrezabala ikasle ohia egin du.

Nola lortu ahalko da liburua?

Gaurko ekitaldian, eta gero idazkaritzan. Gure asmoa Tolosako liburutegian salgai jartzzea da.

Gaurko ekitaldia nolako izango da?

Bi zati izango ditu. Batetik liburuaren aurkezpena egingo dute 3-4 lagunek euren ekarpenak irakurri, eta liburu eta Usabalgo jaialdiko irudiak ikusgai direla. Ondoren, Poesia Errezitaldian ikasleek eskaini zuten saioaz gozatzeko aukera izango da berriro.

Gutunak

Gerontologiko berriaren kalitateari buruz

Tolosako alkateak, postuan, urte bat betetzeagatik DVk eginiko bi orrialde osoko erregalaon idatzitako artikulua irakurri eta gero, hurrengo hau idaztera bultzatu gaitu.

Honekin, gure helburua, Hitler-en, propagandarako ministroak esan ohi zuena ekiditea da: maiz errepikatutako gezurra egia bihurtu ohi da, defendatzen ez den egia, egi izatez uzten duen artean.

Aurreko asteburuan, DVk eginiko oparrian, alkateak zera zioen: «Gerontologiko berriaren kalitatea, Euskal Herri plazan zegoenarena baino hobea izango da».

Guk berriro, askotan esan izan duguna errepikatuko dugu, hemen eta edonon: 10 pezetakin, 7 pezetakin baino zerbitzu hobea eman daitekeela. Etorrizuzenean gertatukoak utziko dute agerian, berriro ere, nor duen arrazoa, gerontologikoaren gaiarekin besteetan ere nabarmen gelditu den moduan.

Esandakoak sinesgarritasun izipen bat izango luke, Eudeleko lehendakari denak, eskumena berea izanda, gerontologikoaren kasuan bezela, udatekxeen esplotazioak azpi kontratatuko balitu. Alkate eta zinegotzi postuak azpikontratuaz, gainontzeko enpresa pribatu guztiei dagokien moduan, negozioaren %30a emanez.

Hala izanda ere, zentzuak eta esperientziak argi utzi izan dute, 10ekin 7rekin baino gauza hobek egin daitezkeela. Herri honetan, beste horrenbeste zerbitzu enpresa pribatu eskuetan uzten ari da udala (kiroldegia, ura, zaborra, hilerria...). Zerbitzu hauetako bakoitza pribatizatzen den bakoitzeko, herritarrok, enpresa hauen esku gelditzen den %30ari dagokion kalitatea galtzen dugu, aldiro.

Manu Leunda (Zahartzaro duina plataforma). Tolosa.

@ Zurea da hitza. Zure inguruko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. *Zurea da hitza* izeneko atalean sartu eta berriak, kekak, iradokizunak sartu ahal izango duzu. Webguneaz gain, ondoren, egunkarian ere argitaratuko ditugu:

www.tolosaldeko-hitza.info

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Urteurrena

JOSE LEUNDA LASA

Jauna
(Trinidad Muñoaren alarguna)
2007ko ekainaren 4an hil zen



Beti izango zara gure artean

Etxekoak

TOLOSA
2008ko
ekainaren 4an

DESIREE JURADO CHANCA

Joan zara bat-batean ikaskide maitaia izango zara beti gure bihotzean

ERRENTERIAKO EUSKARA ZERBITZUA
UDAL EUSKALTEGIA

ERRENTERIA-ORERETA
2008ko
ekainaren 4a

Udala Guatemalan bost proiektu aurrera eramaten laguntzen ari da

Alegia » Mugen gainetik Gobernu Kanpoko Erakundearen bidez, 2.000 euroekin oinarritzko beharrei aurre egin zaie.

NEREA URBIZU

Seve Zubiri Mugen gainetik Gobernu Kanpoko Erakunde ko-ordinatzaile nagusia izan zen Alegian herenegun. Tartean ere Guatemalako Francisco Velasco ere izan zen, Guatemalako Asaunxil erakundekoa. Alegiako Udalak 2.000 euroko diru laguntza eman zuen iaz Guatemalara bidaltzeko, eta diru honekin zer lortu eta lortzen ari diren azaltzeko balio izan zuen herenegungo bisitak.

Elikadura, heziketa, osasuna, tokiko garapen ekonomikoa eta giza eskubideak dira Udalak emandako diruarekin bultzatuko dituzten proiektuak. «Mugen Gainetik erakundeak bazterte sozialaren, diktaduren, arrazakeriaren eta matxismoaren aurka» dago besteak beste. «Helburu nagusia garapena da, bizi kalitatea hobetzeko eta arazo politiko nahiz kulturalak soluzionatzeko». Beraz, orokorrean, mailaren hobetzea bilatzen du. Honen baitan, hortaz, daude elikadura eta osasuna hobetzea; oinarritzko beharrak, hain zuzen.

Jarraikotasun horren bila

Alegia bezalako Udaler emandako diru laguntzari esker, Guatemalako Ixil eskualdean (120.000 biztanle) berogailu hobekak, botika batzuk, biztanleriaren parte-hartzea, edota eskoletako ekipamendua lortzen ari dira.

Velasco argitu zuen Asaunxil Guatemalako erakundeak aipatutako bost proiektu horiek bultzatzen dituela. «Gerra garaian 114 komunitate desagertarazi zituzten eta zailtasun handiak daude ondorioz: alargun asko gelditu zen eta haur asko, umezurtz. Hori aurre egiteko sortu zen Asaunxil erakundeak». Gerra garaian 200.000 hildako izan ziren: pentsatzen da Ixil eskualde indigenan izan daitekeen zauria eta honen ondorioak.

Horregatik, erakunde hauek «ez dute proiektu polit batetik abiatu nahi: gure politika jarraitasunaren da eta aipatutako proiektu horiek indartzea».

Bake akordioa duela 11 urte

Nahiz eta bake akordioa sinatu duela 11 urte ia 50 urte gerran izan ondoren, ez dira oraindik hainbat akordio betetzen, hau da; elikadurarako eskubidea dute, eta indigenen diskriminazioaren kontra daude idatzietan, baina ez da hori ematen oraindik, 11 urteren ondoren.



Alegiako eta Legorretako Udaleko ordezkariak Zubiri entzuten. Eskuinean, Francisco Velasco guatemalarra. N. URBIZU

«Ixil eskualde indigenak garatzeko gogo ikaragarria dauka»

IMANOL ARTANO » Mugen gainetik GKEko kidea

Alegia » Joan den abuztuan Ixil eskualde indigenan izan zen bertako heziketa zentroetako diagnostika egiteko asmoz.

N. URBIZU

Imanol Artano (Alegia, 1958) joan den udan hilabete batez Guatemalako Ixil lurraldean izan zen, Mugen Gainetik izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearen bitartez.

Nolatan joan zinen Guatemalara? Mugen gainetik GKErekin harremanetan jarri nintzen eta bertako heziketa zentroetako diagnostikoa egiteko asmoekin joan nintzen. Francisco Velascoekin harremanetan jarri nintzen ere eta jakinarengainean jarri zidan, nora jo eta zer ikusi esateko. Asaunxil zer zen ere azaldu zidan (Guatemalako bertako erakundeak). Ixil indigenen lurraldeko Zentroen antolakuntza, beharrak eta abar ikusten aritu nintzen.

Eta nola egiten zenuen han lana?

Francisco nora jo esan ondoren, ikastetxeetako irakasleekin hitz egiten nuen lehenengo, gero zuzendaritzarekin eta bukatzeko ikasleekin.

Zer ikusi zenuen han?

Biluzik daudela, ez dutela ia ezer. Normalean, egurrarekin eta txaperekin egindako egitura bat,



N. U.

gehienetan argindarrak gabe, lurra lokatzeak, mahai zahar batzuk eta bakoitzak koaderno txiki bat eta arkatza berdin. Material alde-tik, beraz, juxtua baino gutxiago.

Gero, bueltatzeko ordua.

Buelatu eta Donostiara joan nintzen eta GKE honekin hitz egin nuen eta diagnostikoak erakutsi nituen: zein beharrak dauden, nola antolatzen diren, zer egin daitekeen... hitz egin genuen. Honen aurrean, hainbat udaletxetan proiektu batzuk aurkeztea erabaki nuen, erakunde honekin kolaboratzen jarraitzeko.

Non aurkeztu zenuen lan hau Udalerarekin kolaboratzen?

Amezketan, Ikaztegiatan, Alegian eta Legorretan. Azkeneko bietan

onartu zuten Guatemalara diru bideratzeko: Alegiak 2.000 euro eman zituen. Amezketak Nepalera bideratu zuen eta Ikaztegiatik Kubara.

Guatemalako ikasleen aurpegian zer ikusi zenuen?

Gogoa eta ilusio ikaragarria daukate, baina oso egoera zaila daukate. Herri txikietan bizi dira eta autobus zahar-zahar bat hartu behar dute eskolara joateko eta 2 orduko bidaia ere egin behar izaten dituzte. Ikusi arte ezin da sinistu. Gatazka armatuarekin gerra garaian oso zigortua izan zen zonalde hau... Aukera dutenak herri handi-egoetara joaten dira ikasketak jarraitzeko.

Ume hauek gero zertan egin dezaket lan?

Oraindik etorkizuna nahiko zaila daukate, duela 11 urte bake prozesuak sinatu zituzten. Sare ekonomikoa nekazaritza da, eta artisautza ere badute. Garatzeko eta aurrera egiteko gogo ikaragarria dute.

Diagnostiko hori bi hitzetan nola deskribatuko zenuke?

Izugarrizko beharra, behar guztiak dituztela, jendeak ikasteko gogo ikaragarriak dituela, eta hermetik bidaltzen den diru horri kristoren etekina ateratzen diotela, azulanean egiten dute ia gutxia. 4.000 euroi etekin handia ateratzen diote.

Hitza Pilota Txapelketako jubenilak final-laurdenetan ariko dira

ERREDAKZIOA

Gaur Hitzako pilota partidak Tolosan eta Alegian izango dira. Beotibarren seniorrak ariko dira 19:00etatik aurrera. Baez II-Lan diribar eta Iraola-Lopetegui lehenengo; Lazkoz-Keralt eta Amanetegi-Lopez, eta bukatzeko Elurbe-Kantxo eta Etxeberria-Telletxea.

Alegian ere 19:00etan izango dira partidak, lau gutzira eta final laurdenak dira: Lizaribar-Albisu eta Kortabarria-Arretxabaleta; Jaunarena-Olalde eta Epelde-Barberia; Apezetxea-Galartza eta Jauregi-Agriano; Ezkurdia-Zubieta eta Otamendi-Murgiondo.

Hiru maila txikiaren partidak

Benjaminak Berastegin 18:00etan hasiko dira larunbatean. Lau partida dira eta 2. eta 3. partidetan Alegiakoak eta Aurrera-Saiatzakoak ariko dira.

Albizturren etzi 19:00etan lehen norgehiagokan Behar Zanakoak ariko dira, alebiren mailan. Egun berean eta ordu berean Adunan, Aurrera-Saiatzako hiru bikote ariko dira lehenengo hiru partidetan. Azkenekoan (laugarrean) Zazpi-Iturriko bikote bat ariko da.

Harremanak hobetzeko hitzaldia antolatu dute astelehenerako

Ikaztegieta » Liburutegian izango da eta komunikazio motak aipatzeaz gain osasunarekin ere lotuko dute.

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean, hitzaldi bat izango da Ikaztegiako liburutegian, 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta. Gaia, *elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzen ikastea* izango da.

Hitzaldi honen helburuak hauek dira: jendarterako eta komunikaziorako trebetasunak hobetzea, gizartearen era egokiago batean moldatzearen.

Programa honakoa da: gizarte harremanek osasuna eta ongizatea dakarte; komunikazio motak, hau da; hitzezkoa eta ez hitzezkoa. Hirugarren puntu bezala, komunikazio estilok: pasiboa, asertiboa, menderatzailea. Bukatzeko, gizarte-trebetasunak: kritikak nola egin eta onartu, nola esan ezetz, nola eskatu mesede bat...

Eskualdekoak «bikain»

Triatloia » Nesketan, Itsaso Leundak 3. postua lortu zuen eta mutiletan Aimar Agirresarobe 11. sailkatu zen.



Itsaso Leundak 3. egin du. U. ALGERO

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Tolosaldeko kirolariak Donostiako Onditzen omeneko XXIII. Triatloian aritu ziren, distantzia olinpikoan (1500 metro-40 kilometro-10kilometro). Eguraldi txarrari aurre eginenez, eskualdeko neska-mutilak bikain aritu ziren, guztiak ere emaitza onak lortu zituztelarik.

Nesketan, esaterako, Itsaso Leunda hernaldearra (Garraitz KE) hirugarren sailkatu zen eta «argi erakutsi zuen Euskadin dagoeen triatloilari onenetariko» dela. Mutiletan, berriz, Aimar Agirresarobe (Kraff-Atletiko) 11. sailkatu zen bizikleta saio izugarri baten ostean.

TTTkoak ere fin

TTT-Iparkalekoek ere emaitza onak lortu zituzten, taldeka 9. sailkatu ziren ateratako 31 taldeen artean. Taldeak «balorazio oso positibo» egin du «probak berak zuten maila internazionala dela eta».

Hurrengo hitzordua larunbatean izango dute Ondarrun eta bertan distantzia olinpikoko zirkuibat izango dute aurretik.



Xake Txapelketan, Mujika garaile

TOLOSA » Pasa den larunbatean Tolosako Xake Txapelketa jokatu zuten Tolosako Xake Elkarteak duen egoitzan. Banakako txapelketa izan zen, 5 minutuko partidetara. Ibarako Xabier Mujikak irabazi zuen. Bigarren Sabino Etxeberria tolosarra eta hirugarren

Josu Mujika ibarratarra izan ziren. Kadete onenari saria Jokin Mendiak irabazi zuen, infantil onenarena Daniel Intxaurrendok eta alebin onenaren Mikel Arechagak. Txapelketako sari berezia jokalaria gazteenarentzat izan zen, Igor Mendizabal alegitarrarentzat. HITZA

Laburrak

Larunbaterako kontzertuko sarrerak salgai

TOLOSA » Mundua Tolosaren baitan larunbat honetan izango den Alasdair Fraser eta Natalie Haas kontzerturako sarrerak salgai daude 20 eurotan www.kutxa.net, Telekutxan, Servikutxan eta lehiatilan.

Etziko 'Herria Kantuan' saiorako sarrerak salgai

ALEGIA » Etziko Herria Kantuan saiorako sarrerak salgai daude oraindik. Alegian, Kultur Etxean bakarrik eskuratu daitezke bi euroren truke. Saioa Kultur Etxean izango da gauean, 22:00etatik aurrera.

Ekain beltza
berriarekin

eLeBERRI beltzarekin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak



Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€



OHARRA: Irteerak bakarrik artzatu daitezke.

think gaur

MUNDU GLOBAL BATEAN ARI GARA PENTSATZEN, NON EUSKADIKO IRAUNKORTASUNAK BOSTON ERE HARTU BEHARKO DUEN KONTUAN

EGITASMO HANDI BATEAN ARI GARA LANEAN BIHARKO EUSKADI ERAIKITZEKO

EAJ PNV

think gaur EUSKADI 2020 IRAUNKORTASUNA

www.thinkgaureuskadi2020.com

Euskal Koparen finala jokatuko dute jubenilek

Ibarra » Finalerdietan Ligako txapelduna kanporatu zuten etxetik kanpo partida bikaina jokatu ostean.

A. IMAZ

Lauburu KEren jubenilek Euskal Koparen finala jokatuko dute etzi 20:00etan Eskoriatzan (Gipuzkoa).

Ibarrako areto futbol taldea bigarren urtez jarraian iritsi da finalera. Iragan urtean garaipena lortu ostean, etzi gauza bera eginen saiatuko da. Horretarako, aurrean izango duen Bilbo Exbasa taldea garaitu beharko du.

«Finalerdi gogoangarriak»

Lauburu KEtik jakinarazi duteenez, Euskal Kopako finalerdiak «gogoangarriak» izan ziren. Taldea ligan 3. postuan geratu zen. Quintana Castro-Urdiales taldea geratu zen lehen postuan. Bi talde

hauen artean jokatu zuten Euskal Kopako finalerdia. Belabietan bina berdindu zuten eta «kanporaketa ia galdutzat ikusten zenean, Kantabriarrek ustekabekoa gertatu zen». Lehen zatian ibartarrak 2-1eko markagailuaz atzetik zihoazten, baina bigarren zatian zazpi gol sartu zizkien kantabiarrei, 2-8ko emaitzaz, partida eta kanporaketa gaindituz.

Lauburu KEtik entrenatzailearen lana azpimarratu nahi izan dute; «entrenatzaileak pazientzia handiarekin izugarritzko lana egin du mutil hauekin. Horren ondorioz jokalariei hauek etorkizunean ziur zeresan handia emateko moduan egongo direla areto futbolaren munduan».

Etzi autobusa 18:00etan

Euskal Koparen finalera joateko Ibarrik autobusa etzi irtengo da 18:00etan ohiko lekutik. Taldeko arduradunek herriko agintari eta kirol arduradunak gonbidatu dituzte.



Aiztondo AHT Ez! taldeak elkarretaratzea egin zuen Zizurkil, zundaketa lanen aurrean. ASERIMAZ

Aiztondo AHT Ez! taldeak zundaketa lanen aurrean elkarretaratzea egin du

Zizurkil » Hogeita lagun zundaketa lanen eremura gerturatu ziren proiektuaren aurkako salaketa egitera.

ASIER IMAZ

Aiztondo AHT Ez! taldeak deituta 20 lagunek elkarretaratzea egin zuten herenegun Zizurkilgo lurretan. «Kaltetutako lur-jabeak zer baldintzatan dauden eta zundaketa lanak eginen ari direnak lurren okupazioa nola egingen duten» sala-

tzeko asmoz joan ziren AHT-ren proiektua bideratzeko zundaketa lanak eginen ari diren gunera.

«Udalaren babesik gabe»

Aiztondo AHT Ez! taldeak azaldu zuenez, «Zizurkilgo Udalak lur-jabeek ez die ez babesik ez inongo informaziorik eman». Euren berriz, «zundaketa lanak salatzen eta lur-jabeak babesten jarraituko» dutela azaldu zuten, «nor baiten babesa behar baitute».

Hauen egoera azaltzerako unean, proiektuaren aurkako Zizurkilgo taldeak zundaketen aurrean

lur-jabeak taldeka beharrenez banaka hartzen dituztela salatzen, «gainera, ez dituzte betetzen egin beharreko urratsak. Zundaketa eginen hasi diren arren inork ez du dirurik jaso, ezta informaziorik ere, ez dakite zenbat denboran arituko diren zundaketak eginen».

Elkarretaratzea Tolosan gaur
AHT Geditu! Elkarlanak gaur Tolosako epaitegiaren aurrean elkarretaratzea egingo du 11:00etan, «AHTren aurkako mugimendua kriminalizatzeke» gazte bat epaituko dutela jakinarazi dute.

Laburrak

Jaien inguruan ezker abertzalearen bilera

IBARRA » Ezker abertzaleak bilera egingo du Subegi Elkartearen etzi, ostirala, 19:30ean. Bertan abertzaleen inguruan hitz egingo da eta herritarrei bertara agertzeko deialdia luzatu diete Ibarra ezker abertzaleak.

Bihar Galarretan Patxi Zeberio eta Imanol Altuna

ERREMONTA » Galarretan bihar erremonte jaialdia ospatuko da 16:00etatik aurrera. Lau partida jokatu dira eta eskualdeko bi pilotari egongo dira bertan: Patxi Zeberio eta Imanol Altuna. Biek elkarren aurka jokatuko dute jaialdiko hirugarren partidan. Elduiaindarrak San Miguel gaztea izango du atzean lagun eta amezketarrak Lizaso.

Festa Batzordearen bilkura gaur 20:00etan

IBARRA » Ibarra Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketa erekin jarraitu asmoz, gaur 20:00etan Udal Pleano Aretoran Festa Batzordearen bilkura egingo du. Bertan parte hartzeri gonbidatu dituzte herritarak.

Osasunari buruzko hitzaldia bihar 17:00etan

LEBURU-TXARAMA » Uli Mankomunitateak eta Kutxa ikasgelak osasunari buruzko hitzaldia antolatuko dute bihar 17:00etan Leburun. Hitzaldia adineko jendearentzat izan arren herritar guztiak parte hartu ahal izango dute bertan. Ongi erosten jakitearen garrantzia aztertuko dute bihar hitzaldian, horretarako kontutan hartu beharkeoa azalduz.

Gutunak

Eredu bakar baten alde

Abesti ezagun batek dioen bezala «Irisiko da eguna, non begiak gorantz jasotzean Askatasuna jarri zuten duen lurra ikusiko dugun...». Gaur, begiak jasotzean «Eredu bakar baten alde» dioten pankartak ikusiko ditugu. Egia da, hori da guk nahi duguna, hezkuntza eredu bakar bat Ibarra 0-16 urte bitarteko neska-mutilentzat; hori da, hain zuzen ere, aspaldion aldarrikatzen ari garena, eta hori da ikastolako zuzendariarekin hitzartzen ari garena.

Guk nahi dugu Ibarra haurrak Ibarra bertan heztea, bere ohitura, familia, lagun eta ingurumarian. Eta lortuko dugu, izan ere, hori ari gara adosten eta hitz egin behar duguneko hitz eginen, eta bada jada, alde biko adostasuna Udal eta Ikastolaren artean. Ikastolako zuzendariak bere interesa erakutsi du Udalarekin elkarlanerantz. Hori da, guk nahi dugun eredu bakarra, kalitateko he-

kuntza eredu. Ibarra, beste erakundeek eskaintzen diguten laguntza hartuta baina, herrian bertan errotutako sustraiekin.

Zoritxarrez, bada Ibarra beste eredu bakar bat. Pentsaera bakar bat, izaera bakar bat, sentitzeko, jarduteko, beldurrarazteko, iraintzeko, mehatxatzeko, ikartzeko, modu bakar bat. Jarrai genezake, baina zoritxarrez ateratzen zaizkigun kalifikazio guztiak ezkorrik dira. Gurekin lan egin nahi dutela sinistatzen nahi izan digute, baina, nahi dutena da herria orain, ez den zerbait bihurtzea. Talde txiki baten zuzendariak dago aniztasunik, askatasunik. Normaltasun politikoa eskatzen dute, baina zinez, ez dute nahi, adostasun eza eta aurkakotasuna dira beren bazka.

Karl Marxek ongi aurreikusitako zuzendariak kilduta, apal dago eta zenbait gauzek lokartu eginen dute. Ez gaitu harritzen; nekaturak gaude, nekaturak hainbeste emegazio eta gezurrekin, hainbeste pintada eta mehatxurekin, ne-

katurak, barneratu nahi diguten beldurrarekin.

Beldurraren bidez eginiko aliazioak eginen ditu indartsu; txikitatik erakusten diete protesta egingo diren arren, agintarien aurka, haiengandik ezberdina den oro salatzen, goiko arraza direla sinistatzen. Autoritariorik ez gaituzte eta haiak dira diktadura erradikalenetatik edaten dutenak, beldurra erabiliz boterea bereganatzeko eta denak berdin izan daitezen helburuarekin heziz. Hori da batzuek nahi duten pertsona eredu. Ibararako.

Orain, bi aldeen arteko adostasunera iristen ari garenotan, bien artean bidea eginen ari garen honetan, elkarlana apurtzeko interesak jarraitzen du. Guk ez dugu etsiko, bai baitakigu gure izerdia eta malakoak Ibarra berri baten adreli direla; Ibarra anitza, batua eta askea. **Maria Consuelo Romeo, Koldo Cid, Luis Alonso eta Aitor Gonzalez.** Ibarra Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Leitza, Lekarotz, Doneztebe, Altsasu eta Berako ikasleen kontzertua, gaur

Leitza » 690 ikasle elkartuko dira Amazabal Pilotalekuan eta denen artean 10 kanta abestu eta 3 dantzatuko dituzte.

NAIARA GARZIA

Gaur Leitza, Lekarotz, Doneztebe, Altsasuko eta Berako ikasleek X. kontzertua eskainiko dute Amazabal Pilotalekuan, 17:00ak inguruan. Orohar 5 ikastetxeetako 690 ikasle elkartuko dira gaur Leitza.

Mikel Olano, Amazabal Institutuko ikaslea da eta bera ere bertan izanen da gaur. «Goizean aurrena aulkiak jarri behar ditugu jendea etortzerako, eta entseatu eginen dugu. Ongi ateratzen bada, ongi, eta bestela ongi atera arte entseatzeari jarraituko dugu. Gero 10 abesti joko ditugu, 17:00 edo 17:30 aldera». 10 abestiak denen artean jo eta abestuko dituzte eta horietatik 2 edo 3 dantzatu eginen dituzte. *Caballo Prieto Azabache* delakoa eta bestea *Buhamiak*. «Polka ere behar bada dantzatu eginen dugu».

Abestiak denen artean joko dituzte. «Urte guztian zehar abesti hauek entseatzeko aritu gara. Orokorrean txirularekin joko ditugu, gero beste instrumentu batzuk ere izanen dira, baina gehienak txirula joko dugu eta gero biek abestu egi-



2004. urtean Amazabal Pilotalekuan egindako kontzertuan ere ikasle ugari bildu ziren. J. ASTIBIA

» EGITARUA

Abestu beharreko kantak

- **Buhamiak**. Herri musika.
- **Otherside**. Red Hot Chili Peppers.
- **Odolaren boza**. Ibon Kotero eta Kepa Junkera.
- **Video killed the radio star**. The Buggles.
- **Have you ever seen the rain**. Cre-

- dence Clearwater Revival.
- **Aitormena**. Hertzainak.
- **John Ryan's Polka**. Herri musika.
- **Carmina Burana: O fortuna eta Fortuna plango vulnera**. Carl Orff.
- **Bok Espok**. Kepa Junkera.
- **Blitzkrieg Bop eta Beat on the brad**. The Ramones.
- **Caballo Prieto Azabache**. Joan

den urteko ekainean hil zen Antonio Aguilar abesle mexikarrarena.

Dantzatu behar dituztenak

- **Buhamiak**. Herri musika.
- **Caballo Prieto Azabache**. Antonio Aguilar.
- **Polka**. Zehaztu gabe dagoen arren, agian dantzatuko dute.

nen dute. Ia 700 ikaslek txirula joko dugu». Gitarra, trompeta, bateria eta horrelakoak ere izanen dira tarlean. «Ahotsak 2 pertsonen soilik eginen dituzte, baina mikrofonoekin», beraz, nahiko emanaldi instrumental izanen da. «Abestiak musikako klasean ikasi ditugu eta aukeraketa maixuen artean egin dute». Besteak beste, Red Hot Chili Peppers, Ibon Kotero eta Kepa Junkera, The Buggles, Hertzainak eta Carl Orffen abestiak joko dituzte. «Aurten X. urteurrena denez, ez dute abesti berririk sartu, beraz, 10 urte hauetan zehar jo ditugun abestiak aukeratu dituzte».

Topaketaz topaketa

Gaur Leitza elkartuko diren arren, urtean zehar Lekarotz, Altsasua, Doneztebe eta Beran ere biltzen dira, urtero. «Gu soilik Berara joan gara eta gero gaur hemen joko dugu, baina besteak Altsasura joaten dira, baita Lekarotz eta Berara ere. Aurreneko mailakoak Altsasura joan ziren eta Lekarotzera ere badoaz, baina hirugarren mailakoak Beran izan ginen». Bigarren DBHkoek ez dute parte hartuko, ez dutelako musikako asignatura izaten, baina gainontzekoek bai.

Olanok azaldu duen bezala, «bazkaria norberak bere kontu eginen du, ateraldi bat balitz bezalax».

Aurkezpen lanetan institutuetako maixuak ariko dira: Iñaki Otaño, Amaia Cordoba, Javier Etxeberria, Aitziber Sanz, Aitor Larrañaga (Leitza) eta Joxan Zabalo.

Rekondo, Urrezko finalera

Aizkora » Larunbatean ariko da Zapeitian, Ugaitz Mugertzaren aurka, 23 urtetik beherakoek kategorian.

N. GARZIA

Jon Rekondok larunbatean Urrezko Aizkolarien Banakako finala jokatu du, 23 urtetik beherakoek kategorian, Ugaitz Mugertzaren aurka. Norgehiagoka Zapeitian izanen da, 22:30ean eta orotara 3 final jokatu dituzte: 18 urtetik beherakoena, 23 urtetik beherakoena eta elite kategorian.

18 urtetik beherakoetan Erasun eta Larretxea lehiatuko dira, 23tik beherakoetan Rekondo eta Mugertza eta elite kategorian Nazabal eta Larretxea.

Joan den urtean ere Mugerza eta Rekondo elkarren aurka aritu ziren finalean eta leitzarrak irabazi zuten. Leitzarrak azaldu duenez, oraindik «lasai» dago. «Mugertzak bere lana ongi egiten du, irabazteko lana ongi egin beharko dut».



Jon Rekondo Leitza egindako kanporaketa batean. N. GARZIA

Aurtengo denboraldiari dago-kionez, Rekondok «nahiko ongi» ibili dela dio. «Nahiko ongi ibili naiz, baina luze egiten da. Bikoteak ere abendu hasi ginen eta dagoeneko bukatzeko gogoak dauzkatz». Txapelketa amaitu ondoren erakustaldiak ekinen dio lei-

tzarrak, eta uda exhibizioak egiten igaroko du urtero bezala.

23 urtetik beherakoek finala jokatu duen arren, nagusietan lehenengo 8 postuetan sartu da eta hurrengo denboraldian nagusietan soilik ibiliko da lehenengo aldiz.

Zizurkilgo Pasmus Pintxo Lehiaketan, hirugarren

N. GARZIA

Zizurkilgo Pasmus taberna-jatetxeak hirugarren postua eskuratu du Gipuzkoako Pintxo Txapelketan. Zizurkildarrek espinaka zelulosarekin, trufa txuriarekin eta arrautzaren gorringoarekin egindako pintxo batekin lortu zuten hirugarren postua.

Aurtengoa pintxoaren txapelketaren X. edizioa izan da eta lehe-

nengo postua Hondarribiako Mari jatetxeak lortu du, txipiroietan arrautzekin egindako pintxo batekin. Aurreko urteetan jatetxe honek ere hainbat sari irabazi ditu, 2 aldiz bigarren gelditu baita eta behin hirugarren. Bigarren postua Donostiako Andra Mari jatetxearentzat izan zen. Hauek shitakez betetako otarrainkak egin zituzten, barazki ohatze batean.



hitza^{info}

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!



Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

Harpidedunentzat
%25
merkeago



19°
11°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EURIA
BEROENA 20°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** ZuhaiBizi Bide Fibromialgia eta Astenia kronikoaren Gipuzkoako Elkarteak informazio hitzaldia antolatu du Kultur Etxean 18:00etan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolak bere 40. urteurrenean argitaratu duen *Urtez urte biziz bete* liburaren aurkezpena eta Batxilergoko ikasleen Poesia Errezitaldia Leidor aretoan 19:00etan. Ordubeten irarungo du.

■ **Tolosa.** Zuhaitz esanguratsuk ezagutzeko ibilaldia ostiralean 17:00etan Gernikako Arbolaren lorategietatik abiatuta. Izen-ematea, 943 652544 telefonoan (9:00etatik 14:00etara).

■ **Tolosa.** Emausen EkoCenterre bisita egingo dute bihar 10:00etan. Izen-ematea, 619 770408 telefonoan edo emioaldea@daltalde21@yahoo.es helbidean.

■ **Bedaio.** II. Mendi Martxa eta I. Bizikleta Ibilaldia antolatu dituzte ekainaren 8an. 6-8 ordu inguruko ibilaldia oinez 07:30ean abiatuta eta 3-4 ordukoa bizikletaz, 08:30ean abiatuta. Izen-ematea, Artubi elkartearen.

Mendi irteerak.

■ **Tolosa.** Arteta-Uharte Arakil mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek ekainaren 8rako Treku (1.265 m), Leziza (1.350 m) eta Beriain (1.493 m) mendiak igoz (7 ordu inguru) Izen-ematea, elkartean (943 652789).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Tolosak ere badu kalitatea

TOLOSA ● Azkenaldian gastronomiarengatik asko ezagutzen da Tolosa komunikabideetan. Janariaren inguruan festa ugari antolatu dira azken urteetan. Eta gastronomiarekin erlaziozuzen profesional ugari daude herrian. Hauentzat guztientzat Q kalitate ziurtagiria aurkeztu zuten pasa den astea. Fronton jatekxan egin zuten aurkezpena Basquetour eta Euskalit enpresako ordezkariak, hain zuzen, Tolosan ziurtagiria eskatu duen jatekxan bakarrean. Tolosan guztira 13 sagardotegi, 4 erretegi eta 40 jatekxan daude eta hauetako hainbat ordezkari ere izan ziren aurkezpenean, ziurtagiriaren nondik norakoak ondo ezagutzeko. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Potxoli! Dagoeneko 10 urte. Muxu handi bat eta beti bezain irrifartsu jarraitu. Zure lehengusuak.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Debagoiena

Ekaina, Asteartea 10, asteazkena 11 eta osteguna 12.
19.00etatik 21.00etara, Arrasateko Kultur Etxean.

Donostialdea

Ekaina, Asteartea 10, asteazkena 11 eta osteguna 12.
19.00etatik 21.00etara, Donostiako Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoan.

Izen emateko:

Deitu

Idatzi

Satu

943 25 10 05

partehartu@baketik.org

www.baketik.org

Laguntza

Aholkaria

Berriketa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Foral de Gipuzkoa

kultura publiko berria
www.kultura publiko berria